

BIGARREN EKITALDIA

ZAZPIGARREN HITZALDIA

**LÍNEAS DE TRABAJO EN LAS DISTINTAS ÁREAS
DE CONOCIMIENTO Y SU VINCULACIÓN CON LA ESTRUCTURA
SOCIOECONÓMICA VASCA**

**EKONOMIA APLIKATUA I SAILAREN
IKUSPUNTUTIK LAN HARREMANETAKO
LIZENTZIATURARI GAINBEGIRADA:
DISEINUA ETA LAN-SOSLAI POSIBLEAK**

MARI LUZ DE LA CAL

Ekonomia Aplikatua I saila. UPV/EHU

Lan Harremanetako Lizentziaturaren diseinurako, EHU/UPVko Ekonomia Aplikatua I sailaren ikuspuntutik ondoko gogoeta hau luzatzen dugu: gaurko lan-munduarekin loturiko edozein puntu ulertzeko gai diren profesionalak pres-tatu behar ditugu, egoeraren analisia burutu eta hobe daitezkeen arloak propo-satu ahal dituztenak.

Azken 25 urteotan lan harremanek jaso dituzten aldaketak, gizartean eragin-dako aldaketak direla-eta Industria-Iraultzaren garaikoekin alderagarriak direnak, hain dira sakonak ezen Lan Harremanak bezalako jakintza-arloa garatzeko beharra sortu baitute. Jakintza-arlo horretan, enpleguaren inguruan dagoen oro kudeatzeaz gain, lan munduarekin loturiko gaien ikerkuntzan sakondu behar da eta, gaur egun Ekonomia, Zuzenbidea, Soziologia eta Psikologia bezalako arloetan sakabanaturik dagoen lan zientifiko guztia, hala edo nola, ordenatu eta garatu behar da.

Azken mende laurden honetako aldaketa ekonomikoek oso eragin handia izan dute euskal ekonomia zein gizartean: krisi eta birmoldaketa prozesuek langabezi tasa altuak sortarazten dituzte eta gure gizarte-egituraren oinarriak sendoenetako bat arrailtzen dute, lanpostu egonkor eta bizitza osokoa hain zuzen. Gertaera hauek pobrezia atea zabaltzen diote, gure gizartean industria-hazkuntza urteetan eragin txikia izan zuen jazoera, gure gizartean fenomeno berria ez bada ere.

Zorionez ala zoritxarrez, iragan denborak ez dira itzuliko eta betebeharrak berbera burutu beharreko lanpostu iraunkorraren ideia alde batera laga behar dugu. Beraz, langabezi-tasa altuak etengabe pairatu nahi ez baditugu (eta eurekin dakartzaten kostu ekonomiko, sozial eta pertsonalak), gertatutako aldaketetara moldatu eta etorriko direnak aurreikusi behar ditugu.

Aldaketetara moldatu eta eurak aurreikustea ez da langile bakoitzak, bere aldetik, egin dezakeen lana, nor bere beharretan murgiltzen delako. Etorri beharreko aldaketak aurreikusi eta gure lanpostuetan izango duten eragina jakitea (bai beren iraupena bai gure egin beharrekoari dagokiela) oso lan zaila da eta gutxitan gara hori egiteko gauza. Azken finean, zera esan nahi dugu: lanak, eguneroko beharrak, itsutu egiten gaitu eta ikuspegi orokorra kentzen digu.

Hori dela-eta, enpresa bakoitzean zein instituzio publikoetan, gure ustez, betebeharrak prospektibo hori gauzatzen duten profesionalak behar dira, jazoerei aurre hartu eta eurretarako prestatzeak kostu ekonomiko eta sozialak eta, batez ere sofrimendu pertsonalak, aurrezten dituelako.

Profesional mota hau enpresan gutxitan topa dezakegu, batez ere gure ekonomian esanguratsuen den enpresa txiki eta ertainean. Giza-baliabideez arduratzen diren pertsonak kontratazio eta kaleratze kostuak gutxitzean aritzen dira, gaur egun nagusi den enpresa-ikuspegiari jarraiki, zeinek lan faktorea kostutzat baino ez duen hartzen, epe laburra azpimarratuz.

Instituzio publikoak, instituzio autonomikoak batez ere, batzutan asmatuz beste batzutan ez, lan mota hori burutzen duten erakunde eta profesionalak prestatzen saiatu dira. Orain arte, defentsa-lana egin ohi dute, hau da, aldaketen atzetik ibili eta eurei ahalik eta erantzunik onena ematen saiatu dira. Betebeharrak Soziologia, Zuzenbidea, Ekonomia eta Psikologia arloetako profesional mota batzuk burutu dute, haiek guztiak formakuntza-hutsune nabarmenak zituztelarik. Hutsune horiek, neurri handi batean, euren ahalegin pertsonalari esker gainditu dituzte.

Gure ustez, oraindik aurrera, aldakuntzari aurre hartzen dioten eta langileak eta enpresak moldatzeko prestatzen duten ekintza estrategikoagoak behar dira. Eta hau izan liteke gure gizarteari Lan Harremanetako Lizentziaturak egin beharreko ekarpenetako bat, zein bi puntutan interesgarria izan litekeen:

1. Gaur egun arlo horretan diharduten profesionalen formakuntza egokiago ematea, euren jardura eraginkorragoa izan dadin.
2. Profesional espezializatu berriak sortzea, bai enpresei begira bai instituzio publikoei begira plangintza estrategiko hau indartzeko akuilua izan litekeena.

Honekin, zalantza izpirik gabe, zera esan nahi dugu: gero Lan Harremanetan Lizentziatuentzako gure gizartean ekiteko esparrua egon badagoela baina, gainera, profesional berri hauek egoteak ekonomiaren funtzionamendu onerako giza-faktorearen garrantziaz ohartzen lagunduko duela. Beste alde batetik, dago-

eneko ekintza-eremu zehatzak ditugu, lan-osasunarena kasu, non legeak geroko Lizentziatuek bete lezaketen eremua sortu baitu.

Lan-Zientzietako Lizentziaturaren ikasketa plangintzaren diseinua proposatzerakoan, zera litzateke egokiena: gaurko planaren berrikuntza osoa egitea, lehenengo urratsetik hasita, honek diseinu koherenteago bati bide emango liokeelakoan.

Hala ere, EHU/UPVko Lan Harremanen UEren plangintzan egin berri diren erreforma biek lehenengo zikloan aldaketa gutxirako tokia utzi dutenez, bigarren zikloaren diseinua honetara bideratzen dute: aurreneko hiru urteetan sakontzea ezinezkoa izan den arloetan, Lan Harremanetan diplomatuak bigarren zikloan bere formakuntza indartzea.

Gaurko lehenengo zikloan, ikasleak bere lanbidea burutzeko beharrezko heziketa praktikoa bereganatzen du edo, gutxienez, heziketa honen oinarriak. Bigarren zikloan, eduki abstraktoagoak eta ikerkuntzari loturiko arloak garatzeko esparrua geratuko litzaiguke. Hauek Lan Harremanetan Lizentziatuari ikuspegi orokorragoa emango liokete, errealitatea hobeto ulertu eta analizatzea eta ekintza-arloak proposatzea erraztuko lioketelarik. Heziketa honek gaurko Lan Harremanetan Diplomatuaarena baino soslai zabalagoa eman beharko luke, lan-bizitza arlo ezberdin batzuetara bideratu ahal izateko. Horretarako, heziketak aniztasuna eduki behar du, dekretuak jasotzen duen moduan, 'Politika soziolaboralak' enborreko gaia jakintza-arlo batzuekin, Ekonomia Aplikatua barne, lotzen baitu.

1990 urteko ikasketa-plangintzaren erreformarekin, gaurko L.H. Diplomaturan, Ekonomia Aplikatua I Sailaren presentzia gogor mugatu egin zen, jakintza-arlo honi loturiko gaiak ez baitziren plangintzaren tronkalitatean barneratzen. Izan ere, L.H. Diplomatuentzako oinarritzko ekonomia-heziketa ezinbestekotzat jotzen bazen ere, Ekonomiari loturiko gaiak unibertsitatearen derrigorrezko ikasgaitzat edo hautazkotzat hartu ziren eta horrek kredituen zenbatekoan murrizketa nabarmena ekarri zuen (%50 g.g.b.)

Gaur egun, Ekonomia Aplikatua I Sailak derrigorrezko gaien artean 17,7 kreditu dauka, gure ustez, eta Estatuaren beste ikasketa-plangintza batzuekin alderatuta, argi eta garbi nahikoa ez dena. Kredituok honela banatzen dira: 5,7 Enpresaren Erregimen Fiskalari dagozkionak, ikasleentzako interes handiko arloa, eta 12 Ekonomiarako Sarrera eta Espainiar Ekonomiari dagozkienak. Bai enpresaren arloan bai Ekonomiaren ezagutza orokorraren arloan, kreditu zenbateko hori daukagula, ikasleari kontzeptu orokorrak eta oinarritzko tresnak besterik ezin diogu eskaini.

Enborreko edo derrigorrezko kreditu gehiagorik ezean, Lanaren Ekonomia ikasgaia hautazkotzat baztertua izan da, 4,5 kreditu duela. Gai honek ikasleentzako duen interesa eta bera garatzeko dugun denbora urria kontuan hartuta, Ekonomiarako Sarrera eta Espainiar Ekonomia ikasgaien kredituen zati bat lan

merkatuarekin loturiko gaiak ikasteko dedikatzen dugu. Honen ondorioz, Ekonomiaren kontzeptu eta oinarriak ongi definitzeko eman beharko genukeen denbora murriztu behar dugu eta ikasleak nahasteaz gain, oinarritzko kontzeptu ekonomikoak modu okerrean erabiltzen dituzte.

Lanaren Ekonomia 12 kreditu tronkal duen ikasgaitzat hartzen duenez, Lan Harremanen bigarren zikloa ezartzen duen dekretuak, ordea, irakasleoi bidea errazten digu, Lanaren Ekonomiari zein oinarritzko kontzeptu ekonomiko eta gure ekonomien ezagutzari behar beste denbora dedikatzen utziko digulako. Honela, azken urteotan gure eskoletan azaldu den gehiegizko zama kontzeptuala alde batera utzi eta beste puntu batzuei denbora luzeagoa dedikatuko diegu: praktikak, adibideak eta eztabaidak geletan, ikasitako kontzeptuak barneratu eta erabiltzen ikasten laguntzen duten jarduerak.

L.H.n Diplomatu zein beste lizentziatura edo diplomatura batzuetatik datozen ikasleei begira, beste inolako ikasketa-plangintzak behar bezainbeste sakontzen ez duen arloan, Lanaren Ekonomia ikasgaiak euren heziketa zabaltzen du.

Ikasgaiaren helburu orokorra zera da: lan merkatuen bilakaera eta funtzionamendua ulertu ahal izateko ikasleari oinarri teorikoa ematea. Horretarako, ildo teoriko guztiak ikasiko ditugu, lan merkatuan gertatzen diren prozesuen diagnostiko ezberdina ematen dutela eta ekonomia-politika anitzak proposatzen dituztela ikusteko asmoz. Oinarri teorikoak ikasi ondoren, gure lan merkatuen egoeraren analisi zehatza burutuko dugu, azken hamarkadetan izan duten bilakaera aztertu eta enplegu-politikak ikasiko ditugu. Politika ezberdinak eta euren filosofia aurkeztuko ditugu, euren erabilera aztertu eta, gainontzeko politika ekonomikoekin lotuz, enplegua sortzeko duten indarra aztertuko dugu. Hau da, ondokoa azaltzen saiatuko gara: enplegu politikak ez daudela isolaturik, beste batzuen artean merkataritza-, industria- edo teknologia-politikari dagokiela gobernuak egindako aukerak eurekiko eragina duela.

Heziketa hau osatzeko asmoz, Ekonomia Aplikatua I Sailak 4,5 kredituko bi hautazko ikasgai eskaintzeko aukera plazaratzen du; haietako bat lan merkatuaren iturri estatistikoak ikasten arituko dena; besteak Ongizatearen Estatua, Gizarte-Babesa eta enpleguaren arteko erlazioak aztertuko ditu.

Amaitzeko, enpresaren fiskalitatearen arloko ikasgai dagokiela, ikasleek arlo honetan gutxienezko ezagupenak eskuratzea nahi baldin badugu, bigarren zikloan gai hauei 6 kreditutik gora dedikatzea ezinbestekotzat jotzen dugu (lehenengo zikloan 5,7 baino ez zaie dedikatzen). Horrela, Lan Harremanetako Lizentziaturi beste lan-irtenbide bat sendotu eta zabalduko genioke: enpresentzako zerga-aholkularitza.